

Esp. Kod./: 2026ES020002

Erref./Ref.: A.M.

DEKRETUA

Oiartzualdeko Hedabideak SLri, eskualdeko informazioa herritarrei euskaraz komunikatzeko eta ahalik eta hondarribiar gehienengana iritsi eta interes orokorreko presentzia publiko handia izateko, Hondarribiko informaziorik interesgarriena eta eguneratuena bilduz, herritarren parte-hartzea bultzatuz eta euskararen presentzia interneten eta paperean bermatzeagatik, dirulaguntza izenduna ematea.

Oiartzualdeko Hedabideak SLk, Hondarribian euskarazko komunikabideak bermatzeari buruzko dirulaguntza eskatzeko, ondoren zehazten den dokumentazioa aurkeztu du:

- ◆ Dirulaguntza eskaera normalizatua.
- ◆ Identifikazio Fiskaleko Kodearen kopia.
- ◆ Gizarte Segurantzako ordainketak egunean dituelako agiria.
- ◆ Ogasun ordainketak egunean dituelako agiria.
- ◆ Kontuaren titularitatea egiaztatzen duen agiria.
- ◆ Proiektua azaltzen duen informazio orokorra.
- ◆ Ekintzari dagokion aurrekontu zehaztua (gastuak eta sarrerak).
- ◆ Beste diru-laguntzetarako eskabideei buruzko aitortpena.

Idazkaritzak emandako aldeko txostena ikusirik eta era berean Kontu-hartzailetzak aurrekontu kontsignazioa badagoela dioen emandako eginbidea ikusirik,

Alkatetza-Lehendakaritza honek, EBATZI DU:

Lehenengo.- Euskarazko komunikabideak Hondarribian bermatzeagatik, zuritu beharreko, **15.000 €ko** dirulaguntza izenduna ematea.

Bigarren.- Hondarribiko Udalaren eta **Oiartzualdeko Hedabideak SLren** arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzea.

Hirugarren.- Dirulaguntza, ondoan zehazten diren epeetan eta era honetan ordainduko da:

1. % 75, hau da 11.250 euro, emakidarekin.
2. % 25, hau da 3.750 euro, proiektua gauzatu eta horren justifikazioa aurkeztu ondoren.

Laugarren.- Dirulaguntzaren gastua, **AD 217/26** erabiliaren kargura izango da.

Elektronikoki sinatutako dokumentua

Alkatea,

Kale Nagusia, 20-20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa) - NIF: P-2003700 H

☎ BAZ 010 - 943 11 12 11 📠 943 11 12 50 📞 UDALA / AYT^o 943 11 12 13 ✉ udala@hondarribia.eus © www.hondarribia.eus

